

Ariketa:

Aurreko mendearen erditsuan AEBetako estatu batean izandako izozki eskaera analizatu nahi da. Horretarako, 1951. urtetik 1953. urterarte lau-astero bildu ziren 30 behaketa eskuragarri daude, martxoaren 18tik eta uztailaren 11ra bitartekoak hain zuzen ere ¹.

Kontuan hartzen diren aldagaiak ondorengoak dira:

- Q Iozki pinten per capita kontsumoa, (Ibiltartea 0,256 - 0,548)
- P Iozki pintako prezioa dolarretan, (Ibiltartea 0,26 - 0,292)
- R Asteroko familia-errenta erabilgarria dolarretan (Ibiltartea 76 - 96)
- F Batezbesteko tenperatura Fahrenheit gradutan, (Ibiltartea 24 - 72)

1. Amerikar unitateetara ohituta ez gaudenez eta pinta bat 0,473 litro direla, gradu zentigradu batean 1,8 Fahrenheit gradu daudela eta dolar bat 0,766 euro direla jakinik, alda itzazu aldagaien unitateak ezagunak diren unitateetan neurtuak ager daitezen.
2. Zehaz ezazu izozki kontsumoa, prezioarekin, errentarekin eta tenperaturaren karratuekin erlazionatzen duen eredu bat.
3. Interpreta itzazu ereduko koefizienteak.
4. Estima ezazu eredua Karratu Txikiaren Arrunten bidez. Koefiziente estimatuen zeinuak esperotakoak dira?
5. Lehen lau asteetako batezbesteko tenperatura gradu zentigradu batean igo izan balitz, beste aldagai azaltzaileen balioak konstante mantenduz, zenbatean estimatzen duzu epe horretako izozki per capita kontsumoaren aldakuntza?
6. Komenta itzazu aldagaien esanguratasunak eta doikuntza.
7. Asteko errenta erabilgarria euro batean gehituko balitz gainontzeko aldagaiak konstante mantenduz:
 - a) Zenbatean estimatzen duzu izozki per capitaren lau asteroko kontsumoaren gehikuntza?
 - b) Esperotako gehikuntza mililitro batekoa izatea posiblea litzateke?

¹Datu-fitxategia: data9-1.gdt. Iturria: Ramanathan, R. (2002) *Introductory econometrics with applications*, 5. ed., South Western. Jatorrizko iturria: Hildreth, C. eta J. Lu (1960), "Demand relations with autocorrelated disturbances", *Technical Bulletin No 2765*, Michigan State University.